mundukide
kooperazio kooperatiboa
cooperación cooperativa

2019
Txostena

www.mundukide.org

Lehendakariaren gutuna

Iñigo Albizuri Landazabal
Mundukideko lehendakaria

2019a, beste urte asko bezala, bere "betiko" arazoekin zihoan aurrera. Hegoaldeko herrietan, hainbat borroka zeuden pizturik, hala nola gerrak eta desoreka izugarria murrizteko borroka eta urtero milioi erdi pertsona baino gehiago (5 urtetik beherako haurrak %67 dira) hiltzen duen malaria gaixotasunari eta beste gaixotasun batzuei aurre egiteko borroka. Bien bitartean, Iparralde garatuan ere "gerra berberak" betiko martxan: Brexita, AEB - Txina gatazka komertziala, hauteskunde prozesuak...
Eta urtea amaitu baino lehen, abenduaren 31n, 27 pneumonia kasuren berri eman zioten OMEri Txinako Wuhan hiritik. Berri horrek betiko aldatu zuen gizateriaren historia.
Harrezkeroztik, Brexitaz, ekonomiaren balizko moteltzeaz eta globalizazioaz hitz egiten zuten pertsonek beren diskurtsoa errotik aldatu dute, eta talde lanaz, elkartasunaz eta bizitzak salbatzeaz hitz egiten dute.
"Mezu berri" horiek entzunda, badirudi Mundukideri buruz eta desigualtasun egoera historikoak iraultzeko elkartasunak duen garrantziari buruz ari direla. Balirudike jatekorik ez duen jendea dagoen bitartean baliabideak barra-barra gastatzen dituen gizarte kontsumista batean bizitzeak berekin dakarren konparaziozko bidegabekeriaz ohartu direla.
Baina ez, COVID-19ari buruz eta gure gizarteetan izango duen eragin ikaragarriari buruz hitz egiten dute.
Pandemia honek gu guztion onena aterako omen du. Nik uste dut dagoena aterako duela. Ona ala txarra den, berehala ikusiko da. Dagoeneko, ari gara ikusten. Galdera askori erantzun behar diegu, eta galdera horietako asko premiazkoak dira. Horietako bat da ea "ahal duenak bere burua salba dezala" egoeran gauden ala "inor atzean gera ez dadin" borrokan jarraituko dugun.
Osasun krisi honetan ez dago mugarik, egia da, baina klaseak hor daude. Eta baliabideak dituzten pertsonek ezer ez dutenek baino aukera gehiago izango dute libratzeko.
Mundukidekoon ustean –gure lanean betidanik gidari izan ditugun balioekin bat etorriz–, nahiz eta krisiak pobretu egingo gaituen, geratuko zaiguna beti izango da askoz ere gehiago gure misioa garatzen dugun herrialdeetan geratuko dena baino.

Orain, inoiz baino gehiago, gure zereginarekin jarraitu behar dugu, desigualtasuna areagotu ez dadin.
Zuek ere gurekin izango zaretelakoan,

www.mundukide.org

Aurkibidea

Misioa	4
Lan ildoak	5
Interkooperazioa	6
Elkarlanak	9
Mozambike Programa	10
Brasil Programa	12
Kolonbia Programa	14
Etiopia eta Ekuador Programak	15
Gehikoop Proiektua	16
20. urteurrena	18
Zehar-lerroak	19
Datu ekonomikoak	20

MUNDUKIDE FUNDAZIOA • Zarugalde 30 •
20500 Arrasate-Mondragón • Tel. 943 772010
mundukide@mundukide.org • www.mundukide.org

CIF: G20673604 / L.G.: SS 405-2016 /
Edzioa: Mundukide Fundazioa

Misioa

Baliabideak eta ezagutza partekatuz Hegoaldeko herriekin lankidetzan jardutea da gure misioa. Mundukideren balio eta printzipioetan oinarrituta, inplikatutako bi aldeen garapen autoeratu eta integrala sustatu nahi dugu, horretarako lan mundu kooperatiboaren elkartasuna bideratuz.

Baloreak

ELKARTASUN UNIBERTSALA
Mundukiden parte hartzen dugunon lanak oinarri du elkartasuna, bai ekonomia solidarioan garatutako beste esperientzia batzuekiko eta baita demokrazia sozialaren alde dihardutenekiko ere, bake-, justizia- eta garapen-helburuak partekatuz.

LANA
Ekintza eraldatzaile gisa hartzen dugu lana, aldaketa-ekintza bezala, garapena lortzeko bide moduan. Mundukiden uste dugu lana bera ere balorea dela, eta kapitalaren gainetik dagoela.

ERALDAKETA SOZIALA
Mundukidetik pertsona eta jendarte bidezkoagoetara aldatzea bilatzen dugu, eta norbere buruaren kudeaketa maila altuagoetara arlo guztietan, genero-harremanak barne; ikuspuntu horretatik, autonomia funtsezkoa da; pertsona, elkarte eta herri bakoitzak erabaki dezan nolako jendartea izan nahi duen.

Lan ildoak

Fundazioaren bi lan ildoen bidez, NBEk 2030erako ezarritako Garapen Sostengarrirako Helburuak (GSH) lortzeko ahalegina egiten dugu. Mundukidek ia 20 urte daramatza egoera ahulenean dauden pertsonen gaitasunak indartzen, pertsona horien eta beren komunitateen garapen sozioekonomikoari laguntzeko eta, hala, helburu batzuk eskuratzeko, hala nola pobrezia eta gosea desagerraraztea, etengabeko prestakuntza sustatzea, emakumeak ahalduntzea eta kontsumo nahiz produkzio modalitate sostengarriak bultzatzea.

1 ESKUALDEKO GARAPEN SOZIO-EKONOMIKOA

Pertsonen gaitasunak sendotu, garapen pertsonala eta komunitarioa indartzeko programak. (Mozambike eta Etiopia)

- Azpiegiturak: ureztapen sistemak.
- Nekazal garapena.
- Hornikuntza eta komertzializazio sarea.

2 GIZARTE EKONOMIA SENDOTZEA

Lidergo sendoa eta eraldaketa sozialerako bokazioa duten talde egituratuetan, enpresa arloa, antolaketa eta kooperatibagintza indartuko duten programak. (Brasil, Kolonbia, Mexiko eta Ekuador)

- Enpresa sozialei zuzendutako aholkularitza.
- Jarduera ekonomiko berriak sortzeko babesa.
- Enpresa sozialei zuzendutako aholkularitza.

Interkooperazioa

Mundukidek, Interkooperazio Sistemaren bitartez, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa osatzen duten eragileen partehartzea bultzatzen du, garapenerako lankidetzaren esparruan, lan munduko elkartasuna aktibatuz.

LABORAL Kutxa
Bidaia solidarioa Ekuadorrera

Laboral Kutxaren ekimenez, Mundukidek antolatutako 2. Bidai Solidario honetan, 11 euskaldun eta 3 indigena ekuadortarrek hartu dute parte, "Alejandro Labaka Fundazioaren gidaritzapean Ekuadorrera egindako 21 eguneko egonaldian. Bidaian zehar, Orellana estatuko, waorani eta kichwa herri indigenen komunitateak ezagutzeaz gain, Ekuadorreko beste errealitate batzuk atzeman dituzte, adibidez Amazoniako petrolio ustiapenek eragiten duten errealitate kontrajarriaren testigu izanik. Alde batetik, aberastasun natural-kultural (urre berdea) izugarria eta bestalde ustiapenek eragindako kutsadura bortitza (urre beltza).

Bidai Solidarioko partehartzaileak

LABORAL Kutxa
Marrupa programarako fondoak biltzea

Bederatzigarren urtez jarraian, LABORAL Kutxak Mundukiderekin batera "Solidarioa izatea oso erraza da" kanpaina sustatzen lagundu du.
Lortutako dohaintza partikularrei esker eta Mozambikeko iparraldeko nekazal programaren bitartez, benetako garapen aukera eskaintzen zaie bertako gero eta nekazari gehiagori.

Kanpainako kartela

Interkooperazioa

EROSKI FUNDAZIOA ETA EROSKI S.COOP.

Gizarte eraldaketarako boluntariotza koperatiboko programa

Azken hamar urteotan, "Gizarte eraldaketarako boluntariotza kooperatiboko programaren" bidez, Eroskik lankidetzan dihardu Mundukiderekin, Brasilgo hainbat estatutan fundazioak laguntzen dituen garapen prometan. Lankidetza-eredu berritzaile honek, Eroski kooperatibari, hegoaldeko herrialdeetan garapen sozial, ekonomiko eta kooperatiboan laguntzeko aukera emateaz gain, esperientzia aberasgarria da maila profesional eta pertsonalean Eroskiko bazkide-langileentzat.

Julio Martinez prestakuntza kurtso batetan

ULMA TALDEA

Brasilgo programarekin elkarlana

Ulma taldeak, Mundukiderekin duen elkarlanetariko bat, kooperatibako bazkideen artean beste herrialde batzuekin lankidetza sustatzea da. Horren erakusgarri, Etor Arregi Unda, Lurrik gabeko Mugimenduko Brasileko kooperatibetan ekoizpen eta komertzializazio alorrean 2 urteko egonaldian zehar egiten ari den aholkularitza lana.

Etor Arregi COOTAP kooperatibako batzarrean

MONDRAGÓN

Humanity at Music

Humanity at Music ikuskizunak MONDRAGONen historia, oraina eta etorkizuna kontatzeko modu berri bat aurkeztu du. Azken batean, interkooperazio proiektu honek, esperientzia, sorkuntza artistikoaren objektu gisa kokatzen du. Proiektu berria, musikala, literarioa eta oso bisuala izateaz gain, proiektu solidarioa ere bada; izan ere, saldutako liburu bakoitzetik euro bat Mundukide Fundazioarentzat da, Hegoaldeko herrialdeetan lankidetza kooperatiboko proiektuak lantzen jarraitu ahal izateko.

Humanity at Music liburuaren azala

Interkooperazioa

HUHEZINEMA
Mundukide saria

Huhezinema film laburren lehiaketako hamahirugarren edizioan, Raul de la Fuente zuzendariaren EL INFIERNO laburmetraiarentzat izan da MUNDUKIDE SARIA, epaimahaiaren arabera, giza eskubideen eta justizia sozialaren gaiak hobekien jorratzen dituen film laburra izateagatik. Mondragon Unibertsitatearen komunikazio fakultatearekin duela 3 urte hasitako lankidetzari esker, gizarte eraldaketaren alorrean lan egiteko aukera eskaintzen digu ikasle kolektiboarekin batera.

Jaialdiko kartela

KOOPERATIBA ARTEKO V. LASTERKETA SOLIDARIOA

Bosgarren urtez jarraian, Aretxabaletako Urkulu urtegia Kooperatiba arteko V. Lasterketa Solidarioaren agertoki izan zen berriz ere. Euskal Herriko hainbat kooperatibak eta partikularrek osatutako berrogeita hamar taldek parte hartu zuten; horri esker, urriaren 20ko goizean Hegoaldeko herriekiko elkartasun kooperatiboa aldarrikatu zen berriz ere. Ekitaldi hau ez litzateke posible izango Athlon, Ausolan, Komunonak, LABORAL Kutxa, Columbus, Urkulu landetxea, Arrasateko Atletismo Taldea, Aretxabaletako Udala, Erkide, Debagoieneko Mankomunitatea eta halako erakunde eta kooperatiben baldintzarik gabeko laguntzarik gabe.

Taldeen arteko lasterketaren irteera

Mundukide gara!

Enpresa eta kooperatiba laguntzaileak

FAGOR · MONDRAGON · orkli · Goizper Group · MAIER · EROSKI · ecenarro · emun · LagunAro · DANOBATGROUP · GSR · ULMA · LABORAL kutxa · Orona · ERKOP · ausolan · ekide · Irizar · MAPSA · aurrenak · abantail · LKS Next · ERKIDE · MONDRAGON Ingeniería y Servicios · kide · eika · osarten · sare teknika · ideko · rpk · KONFEKOOP · BATZ · zabala

Erakunde laguntzaileak

Gizabidea Fundazioa · ELKARHEZITZEN · lanki · MONDRAGON UNIBERTSITATEA · Hiruatx · Mundura · MUNDU ZABAL · HARREMAN · ACACE · WORK4 PROGRESS · "la Caixa" Foundation · ayuda en Acción

Erakunde laguntzaileak

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA · AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO · EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO · Gobierno de Navarra · AGENCIA ESPAÑOLA DE COOPERACIÓN INTERNACIONAL · Gipuzkoako Foru Aldundia · Diputación Foral de Gipuzkoa · BFA DFB · ARRASATEKO UDALA · AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN · ARAMAIOKO UDALA

Mundukide erakunde hauetako kidea da 2019. urte bukaeran:

Funko · cepes · PRO ÁFRICA · Fiare · RED por la SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL en la LUCHA CONTRA LA POBREZA · Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartea

Mozanbike



Programaren helburua, tokiko herritarrek errenta sortzeko duten gaitasuna handitzea da. Berdintasunean eta jasangarritasunean oinarritutako garapen ekonomikoa sustatuaz, bertako pertsonak ahalik eta autonomo eta burujabeen izan daitezen.

ESKUALDEKO GARAPEN SOZIO-EKONOMIKOA

Hornikuntza eta komertzializazio sarea
Programak, besteak beste, hazi eta ongarrien erosketa erresten die nekazariei, batipat distantzia eta logistika arrazoiengatik isolaturik daudelako.

Laguntza teknikoa
Bertako nekazaritza erakundeekin lankidetzan arituaz, nekazariei laguntza teknikoa eskaintzen zaie.

KOOPERANTEAK

Jacob Nogueira Ferreiro
(Cabo Delgado)

Raúl Valdés Martín
(Cabo Delgado)

Beñat Arzadun Olaizola
(Niassa)

Ureztatze sistema
Urte osoko nekazal ekoizpena errazten du, ondorioz biztanleen elikadura hobetuaz.

WORK 4 PROGRESS
Mundukidek, La Caixa Gizarte Ekintzako "Work 4 Progress" programan parte hartzen du. Programaren helburua enpleguaren arloko erronkak eta beharrak identifikatzea da, eta, irtenbide berritzaileak eskainiz, egoera ahulean dauden emakumeei eta gazteei arreta berezia eskaintzea.

Fatima Nagia *(Cabo Delgadoko nekazaria):* "Sesamoa ekoizten dut duela 4 urtetik eta egiaztatu dut funtsezkoa dela teknikak ondo aplikatzea eta laboreetan inbertitzea ekoizpen ona izateko. Pozik nago, nire produktuen salmentei esker gustatzen zaidana eta behar dudana eros dezakedalako; jatorduetarako aulkiak, elikagai egokiak, eta iaz ere bizikleta bat erosi nuen. Beharrezkoa da lan asko egitea, baina saria oso handia da niretzat".

2019KO EKINTZEN EMAITZAK

JARDUERA	BITARTEKOA	EMAITZAK	EMAKUMEAK
UREZTATZEA	Labore nagusiak: tokiko tipula, aza, letxuga, piperra, hosto-barazkiak eta tomatea	Ureztatutako 530 hektarea	1.083 emakumek beren baratze produkzioa daukate
LAGUNTZA TEKNIKOA	Tokiko 16 elkarterekin lan hitzarmena	199 instruktore	31 instruktore
NEKAZARITZA PRODUKZIOA	Honako labore hauek bultzatu dira: sesamoa, babarruna, kakahuete fina eta barazkiak.	15.000 ha baino gehiago produkzioan, 6 milioi eurotik gorako balio zenbatetsia dutenak.	20.000 partaidetza baino gehiago, 6.000 emakume baino gehiagorekin
INTSUMOEN KOMERTZIALIZAZIOA	44 akordio intsumoen tokiko banatzaileekin	134.000 € an baloratutako hornikuntza	

Sesamoaren laborantza, Niassa eta Cabo Delgado probintzietarako apustu produktibo handienetako bat izan da. Mundukide azken 8 urteetan ari da labore hori sustatzen, eta azken kanpainetan ikusten hasi da, benetan, herritarren artean izaten ari den eragin handia. 2019a, zehazki, azken urteetako kanpainarik onena izan da: produkzioa 12.000 hektareatik gorakoa izan da eta, batez beste, 180 euroko etekin garbia sortu da familia bakoitzeko; hala, aipatutako laborea errendimendu iturri nagusietako bat bihurtu da familientzat. Sesamoak eta, neurri txikiagoan, baratzeak hartu duten produkzio bolumena eta dimentsio soziala kontuan hartuta, ordua da sustapen horietan sendotzeko etapa berri bati ekiteko, produkzio kate osoaren integrazio handiagoa bilatuz.

2020 HELBURUAK

- Bolumen handiko merkatuak dituzten eta gizarte, kultura, ekologia, teknika eta ekonomia aldetik egokiak diren labore berriak sartzea; baita lanaren produktibitatea hobetuko duten teknika berriak ere.
- Izurriteen eta gaixotasunen aurka borrokatzeko produktuen erabilera hobetzeko laguntza tekniko kualifikatua lehenestea.
- Nekazaritza-intsumoen banaketa sarea sendotzea eta handitzea, eta irrati komunitarioekiko lankidetza handiagoa sustatzea nekazaritza arloko informazio garrantzitsuak zabaltzeko.

Jacob Nogueira: "Mozambiken nekazaritza merkataritzaren ikuspegitik sustatuz ari gara aurrera egiten; horretarako, milaka nekazari etekin ekonomiko ona duten labore batzuen ekoizpenera bideratzen ari gara, laboreon komertzializazioa erraztuz".

Brasil

Helburua, asentamenduetan eta kanpalekuetan bizi diren Lurrik Gabeko Nekazarien Mugimenduko (MST) familien garapen sozioekonomikoa bultzatzea da.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

LEHENTASUNAK

	HELBURU ESTRATEGIKOAK	LEHENTASUNAK
E1	FORMAKUNTZA	OINARRIZKO IRAKASKUNTZA IRAKASKUNTZA ERTAINA GOI MAILAKO IRAKASKUNTZA
E2	ASISTENTZIA TEKNIKOA	OINARRIZKO GESTIO ESTRATEGIKOA
E3	KUDEAKETA EREDUA	DEFINIZIOA PRAKTIKA HEDAPENA
E4	INTERKOOPERAZIOA	ERREMINTAK KOMERTZIALIZAZIOA PERTSONAK

PROGRAMA OPERATIBOA

PLANGINTZA+INDIKATZAILEAK

HELBURUAK

PERTSONAK

KOOPERAZIOA

28.738 ONURADUN (%51 EMAKUMEAK)

João Pedro Stedile
BRASIL
Lurrik Gabeko Langileen mugimenduko idazkari orokorra

"Mundu justuago baten bilaketa geldiezinak batzen gaitu Mundukide eta MST"

KOOPERANTEAK

Natxo DeVicente Casillas
(Rio Grande do Sul)

Pryscila Marques
(Ceará)

Etor Arregi Unda
(Ceará)

Julio Martinez Arija
(Sao Paulo)

Iker Cabrejas De La Torre
(Ceará)

Jon Etxebarria Gaztañaga
(Paraná – Santa Catarina)

Josiane Lima dos Santos (*MSTko marketin-koordinatzailea): "Mundukideren eta MSTren arteko lotura oso garrantzitsua da mugimendua garatzen ari den merkaturatze kolektiboko tresnak antolatu eta eraikitzeko. Historikoki nekazariek eraikitako mugimendua, non kolonoen seme-alabek profesional bihurtzeko eta ekoizpen-kooperatiben, elkarteen eta nekazaritza-erreformako arloetako produktuak merkaturatzeko tresnen antolaketaren buru izateko aukera duten. Bide batez, antolaketa-modu berriak ezartzeko eta Nekazaritzako Herri Erreformaren proiektua egingarri egiteko protagonista izanik.*

2019KO EKINTZEN EMAITZAK

JARDUERA	BITARTEKOA	EMAITZAK	EMAKUMEAK
KOOPERATIBIGINTZAN AHOLKULARITZA	• 7 euskal kooperante. • Bertako 3 talde aholkulari	5 estatutako, 5.679 bazkidedun 22 kooperatibentzako aholkularitza.	Kooperante 1+ 296 bazkide (%26)
PRESTAKUNTZA	Ipar- ekialdeko Kooperatibetako teknikoentzat gestio ikastaroa	50 pertsonei zuzendutako 7 formakuntza	14 emakume
GENERO BERDINTASUNA	• Hegoaldean, emakumez osatutako 2 ekintzailetza proiekturi aholkularitza. • Ipar-ekialdean, genero eta agroekologian formakuntza saioak.	• Hegoaldeko ekoizpen sektoreko arduradun 1 • Emakume taldeei zuzendutako 5 teknikari	Ekoizpen ekimenetan 49 kide
INTERKOOPERAZIOA	Kooperatiben arteko interkooperazioa	• Koopen komertzializaziorako idazkaritza nazionala • 2. graduko 4 ekoizpen kooperatiba • Kafearen nazio mailako koordinazio taldea. • Lankidetzako 16 instantzia	32 emakumek prestakuntza jaso dute(%33)
EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN KOMERTZIALIZAZIOA	• 8 denda berri irekita • 6 denda irekitze lanetan	44 langile	22 emakume

2020 HELBURUAK

Hegoaldean eta ipar-ekialdean prestakuntza formalak eta erdi-formalak indartzea. Ipar-ekialdeko estatuentzat berriz, kudeaketa kooperatiboko teknikoak formatzeko ikastaroaren bigarren edizioa antolatuko da. Hegoaldeko estatuek gaikuntza-ikastaroak egingo dituzte kooperatibentzat eta laguntza taldeentzat.

Erdigunea Cearan estatuan jarrita, ipar-ekialdeko laguntza-prozesuei eutsiko diegu, bost nekazaritza-industria martxan jartzeko elkarlanean. Hegoaldeko kooperatibei eta laguntza-taldeei aholkularitza ematen jarraituko dugu. Komertzializaziorako ahaleginari babesa emango diogu, produktu ekologikoen denda sareari eta aldi berean salmenta prozesuari aholkularitza emanez.

Kolonbia

Asier Elorza Ugarte (Nariño)

Helburua, Pastoko (Nariño) birziklatzaileen eta ingurumen berreskuratzaileen kolektiboaren antolaketa eta arlo sozioekonomikoa indartzen laguntzea da. Bigarrenik, nekazaritza ekoizpenaren bitartez Pastoko emakume indigenen familien garapen sozioekonomikoa indartzea.

2019ko balantzea: Pasto hirian ofiziozko birziklatzaileen 4 elkarte legitimok bat egin dutenez, bigarren mailako kooperatiba bat eratu da. Prestakuntza prozesua eta gauzatutako lankidetza sistema oso positiboak izan dira, batez ere kooperatibako liderren artean. Nekazaritza-jarduerari dagokionez, , nekazaritza ekologikoaren ekoizpenari buruzko prestakuntzarekin eta laguntza teknikariekin hasi gara, Bogotako hainbat jatetxe hornitzeko.

Lina Rojas *(Pastoko birziklatzailea):*

"Orain urtebete hasi ginen Mundukiderekin elkarlanean, Pastoko birziklatzaile guztiak talde bakar batean elkartzeko helburuarekin. Gure lana kendu nahi diguten multinazionalen aldetik mehatxatuta bagaude ere, langileak garenon prestakuntza indartuz eta gure ezagutza partekatuz defendatuko gara."

	JARDUERA	TRESNA	EMAITZAK	EMAKUMEAK
8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	KOOPERATIBEN KUDEAKETAN LAGUNTZEA	13 pertsonari zuzeneko laguntza ematea	211 bazkidedun 4 kooperatiba	Emakumeak: %77
4 KALITATE ONEKO HEZKUNTZA	PRESTAKUNTZA	Prestakuntza eskolak	715 pertsona prestatuta	Emakumeak: %74
17 ITUNAK, HELBURUAK LORTZEKO	INTERKOOPERAZIOA	4 erakunderen artean 2. mailako kooperatiba berri bat eratzea		
	ONURADUNAK	655 pertsona	119 gizon	456 emakume

2020 HELBURUAK

Birziklatze jarduera:

- Barne prozesu hauek hobetzea eta sistematizatzea: bilerak, erabakiak hartzea eta kooperatibatik kanpoko eta barruko prozesu operatiboak.
- Alkatetzarekin batera jarduteko sistema bat lortzea eta indartzea.
- Hondakin Solidoen Kudeaketa Integralerako Planean (PGIRS) eragina izatea, kolektiboarentzat hobekuntzak egon daitezen.

Nekazaritza jarduera:

- Nekazari taldeen batasuna indartzea.
- Baratzetako nekazaritza ekologikorako trantsizio prozesua bideratzea.
- Nekazaritza ekologikoaren ziurtagiri parte-hartzailea lortzea.

Etiopia

Jorge L.
(Oromía)

Etiopian 2019an egindako lana, berez, esku hartzeko eremua identifikatzean eta tokiko bazkidea hautatzean zentratu da, eskualde garapeneko programa berri bat diseinatu ahal izateko. Herrialdeak hartzen duen lurralde zabalaren barruan, Oromia eskualdea aukeratu da; zehazki, Arsi eskualdea. Gune hau herrialdeko gunerik pobretuenetakoa bada ere, bertako gobernuak sustatu nahi duen garapen korridore batean dago estrategikoki kokatua. Arsi oso populatuta dago, eta nekazaritza ekologikorako potentzial handia du, izan ere, leku ezin hobea da eskualdearen garapen sozioekonomiko jasangarria susta dezaketen iniziatiba produktibo desberdinak garatzeko. 2020ari begira Mozambikeko programan eta Amerikako programetan bereziki metatutako ezagutzak eta esperientzia aprobetxatuko ditugu, programa berriaren oinarria, aipatutako programetan jasotako jarduerak, tresnak, ikaskuntzak eta edukiak izanez.

Programaren talde laguntzailea.

Ekuador

Jon Arruti Chasco
(Imbabura)

2019 an Ekuadorren izandako presentziari berrekin dio Mundukidek Imbabura eta Carchi probintzietan. 2021erako lan nagusia kontrapartearen eta iparraldeko mugan egin beharreko lanaren identifikazioa sendotzea izango da, gizartea eraldatzeko bokazioa duten nekazaritza eta abeltzaintzako iniziatibetan antolaketa indartzea bilatuz.
Bestalde, Kakaoa, guayusa eta platanoa komertzializatzen duten Wiñak elkarte indigenarekin harremanetan gaude, antolaketa eredua indartzeko diagnostiko-prozesua eta plangintza koordinatzeko helburuarekin.

Wiñak kooperatiba.

Mundukideren gizarte eraldaketarako hezkuntza proposamenaren helburua eta ekarpena zera da: hegoaldeko lankidetza programen eta gure ingurunean egindako jardueren artean, orain arte zegoen marra lausotzen lagunduko duten ikaskuntza eta eraldaketa sozialerako espazioak ahalbidetzea. Hau da, hausnarketa, ikaskuntza eta ekintzarako esperientziak ahalbidetzea, errealitate globalak eta horien toki espezifikotasunak hurbiltzeko, eraldaketa sozial kritiko eta globala bultzatzeko, Arrasateko ingurune hurbiletik harago, gizarte justuago, solidarioago eta autokudeatuagoak helburu.



Gure Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Estrategia onartu ondoren, 2019an GEHIKOOP (Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Inter kooperatiboa) proiektu pilotua definitzeko eta martxan jartzeko egin dugu lan. Proiektuak bi lan ildo nagusi ditu, lehenengoan, kooperatibetan gizarte-eraldaketari buruzko ikuspegi orokorra itsatsi nahi da. Horretarako, Fagor Ederlan, Copreci, Maier eta Arizmendi ikastola kooperatibek Brasilgo lau kooperatibekin elkarreraginean ari dira, arazo komunei irtenbideak partekatzeko prestakuntza eta praktika ibilbide batean. Bigarren lan-ildoan, Mondragon Unibertsitatearekin eta Arizmendi Ikastolarekin lankidetzan ari gara, haien prestakuntza-profilean egungo eredu sozioekonomikoaren ikuspegi kritikoa eransteko.

Gehikoop taldeko pertsonen testigantzak:

Imanol Arriolabengoa *(COPRECI): "Ireki dugun prozesu honek, pertsona batzuek beste giza errealitate batzuekiko hartu dugun erantzukizunari erantzuten diola uste dut. Gaur egun, inoiz baino solidarioagoak izan behar dugu "mundua" deritzon herrixka global honetan, eta bereziki Arrasateko kooperatiben inguruan; izan ere, 10 printzipioren artean, lankidetza-sistema, identitate unibertsala eta eraldaketa soziala gailentzen direlako ".*

Nagore Iraola *(ARIZMENDI IKASTOLA)*: "Prozesu honetan ia kasualitatez egiten dugu topo Mundukiderekin. Hitz egiten hasi eta konturatu ginen, zalantzarik gabe, hezkuntza funtsezkoa zela Mundukideren proiektuetan. Hau da, asko geneukan emateko eta jasotzeko. Arizmendi kooperatibako komunitatea oso konprometitua egon da beti gizartearekin, eta hau aukera zoragarria da, gure nortasunarekin bat baitator. Bi urteko prozesu honek beste herrialde batzuekin harremanetan jartzen gaitu, eta iruditzen zaigu baditugula ideiak eta proiektuak konpartitzeko . Gure komunitatea aberasteko eta eraldatzeko une ona eta truke zoragarria dela uste dugu ".

Eneko Redondo *(MAIER)*: *"Proiektu hau haize freskoa da Maier taldearentzat. Gizarte-ekintzaren esparruan, korporazioaren barruko zein kanpoko kooperatiben arteko lankidetzak motibatzen gaitu. Ilusioz betetzen gaitu prozesu honetan besteengandik zenbat ikasi dezakegun eta gure balioak nola indartuko ditugun pentsatzeak. Guretzat oso pozgarria da pentsatzea taldearen ezagutza profesionalak gizartearen eraldaketan eragin dezakeela, eta zenbateraino lagundu diezaiekegun gure errealitatetik urrun, premiaren kulturan bizi direnei ".*

mundukide
kooperazio kooperatiboa
cooperación cooperativa

JABETZEN

2019an, fundazioaren 20. urteurrena ospatu dugu, bi hamarkadatan Mundukide-rekin batera lanean aritutako pertsona eta erakunde guztiak elkartu eta eskerrak emateko.

Ospakizuneko ekintza azpimarragarrienak bi izan dira:
azaroaren 7an Arrasateko Kulturaten 150 pertsonarekin egindako Ekitaldi Nagusia eta azaroaren 8an Arrasateko Amaia antzokian 800 pertsonen aurrean aurkeztutako ABA TAANO gospel talde ugandarraren ekitaldia.

> Ikusi hemen urteurreneko ekitaldia:
https://youtu.be/zcYIwmL4B80

Mundukideren lana garapen sozioekonomikoa sustatzea da, horregatik jarduerak eskualdeen eta lan egiten dugun taldeen ekonomia soziala sustatzera bideratuta daude. Hala ere, GENERO BERDINTASUNA eta IRAUNKORTASUNA (Ingurumen, giza ekonomia, kultur identitate alorrean) bezalako zehar-lerroek garapenean duten interdependentziaz jabetuta, funtsezko eta lehentasunezkotzat jotzen ditugu fundazioaren eginbeharretan.

GENEROEN ARTEKO BERDINTASUNA

2019an, ibilbide zehatzak sustatu ditugu genero-berdintasuna maila estrukturalean eta operatiboan instituzionalizatzeko, eta horretaz gain, fundazio barruan ezagutza eta sentsibilitatea areagotzeko ekimenak praktikan jarri dira, barneko lan-prozesuetan emakumeak ahalduntzeko baliabideak jarriz.
Bestalde, genero alorreko lana gidatzen duten dokumentuak berritzen eta egokitzen aritu da taldea, Generoko Barne Taldearen eskutik ezarriko direla bermatuz.

POBREZIAREN AURKAKO INGURUMEN IRAUNKORTASUNA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza duen proposamen hau Goi Mailako Heziketa Ziklo-etako irakasleei eta ikasleei zuzenduta dago, eta *Pobreziaren Aurkako Borrokaren eta Ingurumen Iraunkortasunaren aldeko Sareak* bultzatzen du. Sarea 9 GGKEk osatzen dugu, tartean Zabalketa, Lankidetzarako Ingeniaritza, ICLI, Tau Fundazioa, UNESCO Etxea, Etiopia Utopia, Egoaizia, Behar Bidasoa eta Mundukide. Sare honen esparruan, garapenerako lankidetza-proiektuen esperientziak partekatu ditugu GGKEek, baita hezkuntza materialak sortu ere. Horrez gain, analisi eta eztabaidarako mintegiak eta sentsibilizazio jarduerak egin ditugu goi-mailako hezkuntzako ikastetxeetan.

Red por la Sostenibilidad Ambiental en la Lucha contra la Pobreza

KARBONO AZTARNAREN KONPENTSAZIOA

Ingurumenarekin dugun konpromisoa kontuan hartuta, Mundukideren jarduerak eragindako karbono aztarna neurtu dugu, IHOBEk eskaintzen duen programa erabiliz.
Euskal Herriko egoitza nagusiko isurketez gain, Afrikako eta Hego Amerikako herrialdeetan (Mozambike, Brasil, Kolonbia, Ekuador eta Etiopia) abian ditugun lankidetza lanen ondoriozkoak ere kalkulatu ditugu. Guztira, 237 t CO_2 izan da Mundukideren karbono aztarna 2019an, hau da, 12,47 t CO_2 langile bakoitzeko. Herrialde askotan egindako lanaren ondorioz, hegazkin bidaiek sortzen duten emisioen bolumena da nabarmenena.
Karbono aztarna horiek konpentsatzeko asmoz, Amazonasen deforestazioa saihesteko lanean diharduen proiektu bat laguntzen dugu Brasilen.

Datu ekonomikoak

DIRU SARRERAK	2.174.093 €	%100
KOOPERATIBAK	816.282 €	%38
ERAKUNDE PUBLIKOEN DIRULAGUNTZAK	478.687 €	%22
BESTELAKO DIRULAGUNTZAK	202.421 €	%9
GGKEak	60.966 €	%3
PARTIKULARRAK	115.054 €	%5
HEGOALDEAN JASOTAKO LAGUNTZAK	377.535 €	%17
BESTELAKOAK	123.148 €	%6
GASTUAK	**2.174.093 €**	**%100**
INTERKOOPERAZIO GASTUAK	1.895.695 €	%87
INTERKOOPERAZIOA MOZAMBIKE	619.357 €	%28
INTERKOOPERAZIOA BRASIL	643.759 €	%30
INTERKOOPERAZIOA KOLONBIA	132.542€	%6
INTERKOOPERAZIOA EKUADOR	44.391 €	%2
INTERKOOPERAZIOA ETIOPIA	57.369 €	%3
GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA	31.167 €	%1
INTERKOOPERAZIOA MALAWI	6.966 €	%0
INTERKOOPERAZIO OROKORRA	106.492 €	%5
HITZARTUTAKO PROGRAMAK	253.652 €	%12
GASTU OROKORRAK	278.398 €	%13
FONDOEN KAPTAZIOA	37.546 €	%2
SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	106.722 €	%5
KUDEAKETA	134.130 €	%6
EMAITZA	**0 €**	





NAZIOARTEKO LANKIDETZA

- INTERKOOPERAZIOA MOZAMBIKE
- INTERKOOPERAZIOA BRASIL
- INTERKOOPERAZIOA KOLONBIA
- INTERKOOPERAZIOA ETIOPIA
- INTERKOOPERAZIOA EKUADOR
- GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA
- INTERKOOPERAZIO OROKORRA

GASTUAK ATALKA

- NAZIOARTEKO LANKIDETZA
- SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA
- FONDOEN KAPTAZIOA
- KUDEAKETA

Kontuak LKS Auditoresek auditatutakoak dira eta auditoriaren txostena web orrialdeko **https://www.mundukide.org/eu/nortzuk-gara/kontuak-argi/aurre-kontuak-kontuak-eta-auditoria-txostenak/2019-2/kontuak-2/** helbidean dago ikusgai urteko kontuekin batera.